

Donostia, 2024ko urriaren 17a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

MARRUTXIPIKO SORLEKU PARKEAREN GAINEKO KONTROL-MOZIOA

Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotzi Arantza González García, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, joan den hilaren 14an, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK), zinegotzi ordezkari Marrero jaunari Marrutxipi-Intxaurrendoko Sorleku parkearen inguruko interpelazio bat aurkeztu ondoren.

JUSTIFIKAZIOA

2017ko maiatzaren 16an, Gobernu Batzarrak honako hauek onartu zituen: Dbusen garajeak handitzeko proiektua, Mons pasealekuaren eta Fernando Sasian kalearen artean bide berri bat egiteko proiektua, eta, gainera, inguru hartan bertan parke bat eta berdegune bat sortuko zirela iragarri zuen.

Aldi berean, eta MartxUP Udalaren ekimenaren barruan, Donostiako bi gazteren Bizi Bizia Berhezi proiektua aurrera eramatea erabaki zuen, 2018an, tokiko gobernuak, orube hura eraldatu –urte asko baitaramatza ia-ia zabortegei bihurtuta– eta parke bihurtzeko; diseinua etorkizuneko erabilizaileek egin zuten, partaidetza-prozesu baten bidez, hau da, inguruko 300 hurrek baino gehiagok eta auzo bereko beste kolektibo batzuek.

Ibilbidean izandako gako nagusiak txosten batean jaso ziren, bai eta partaidetza-prozesuaren emaitzak ere, eta, ondoren, Udal Gobernuak eta Ekialdeko Barrutiko Batzarrak parkea egiteko izapideak egiten hastea erabaki zuten.

2021eko azaroan –denbora pasatu eta gero– beste parte-hartze prozesu bat hasi zuten, 2017an egindakoaren "osagarria" esan ziotena, eta, hiru bilera egin eta berriz definitu zuten proiektua, taldean.

Egindako bi prozesuez arduratu zen elkarteak txosten bat aurkeztu zuen 2022ko maiatzean, ateratako ondorioak jasotzen zituena, eta, hura baliatuz, aurreproiektua egiteko enkargua eman zion Donostiako Udaleko Proiektu eta Obren Zuzendaritzak Cristina Rodriguez Urquijo arkitektoari.

2023ko martxoaren 1ean aurkeztu zuten aurreproiektua jendaurrean, herritarren azken ekarpenak jasotzeko bidea izateko, oinarritzko proiektua definitu baino lehen. Memorian jasotako ondorioak planora nola eramán zituen azaldu zuen Cristina Urquijok, bai eta ideia batzuk egokitzea baldintzatu zuten faktoreen berri eman ere. Ondoren, galdera eta ekarpen batzuk egin zituzten bizilagunek; irisgarritasunari, parkearen mantentze lanei eta Marrutxipiko saihezbide berriak proiektuaren gainean izango zuen eraginari buruzkoak, batez ere.

Gainera, udal gobernuak 300.000€-ko kontu-sail bat sartu zuen 2023ko aurrekontuan, Sorleku parkea egiteko Ekialdeko Barrutiak jarritako beste 300.000€-ri gehitu zitzaizkionak. Zoritxarrez, udal-gobernuak 60.000 eurora murriztu zuen udal-aurrekontuaren kontu-saila, eta, beraz, 2023an ja ez zegoen nahiko diru parkea egiteko.

2024an, proiekturako aurrekontua lekukotasunarena da oraindik ere, baina martxoan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren (FOFFIM) behin betiko likidazioa eginen ondoren, Udalak 1,1 milioi euro gehiago jaso zituen, eta Sorlekuak behar zituen hirurehun mila euroak berriz jartzea erabaki zuen.

EAJko eta PSEko udal gobernuari, joan den 14 bildutako Espazio Publikoaren Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) galdetu ondoren zergatik ez zen exekututzen jada Marrutxipin (Intxaurren) Sorleku parkea, Juantxo Marrero zinegotzi ordezkariak erantzun zuen parkea ez dela egingo, gobernuak erabaki duelako bertan disuasio-aparkaleku bat egitea.

Horrelako neurriek agerian uzten dute EAJrentzat eta PSErentzat parte-hartzea denbora-pasa baino ez dela, eta gobernantza kolaboratiboa beren hauteskunde eta gobernu programetan lerro bat baizik ez dela; benetan, beste interes batzuek pisu handiagoa dutela.

Legegintzaldi honetarako, PNV-PSEren gobernu-programaren eslogana honako hau da: "Donostiarrekiko konpromisoa", eta honako ideia hauek osatzen dute: "01. konpromisoa: Donostiarrak eta gure auzoak izatea ekintza politikoaren ardatz"; "04. Elkarrizketan eta herritarren konplizitatean oinarritu eta hiri partekatu baten alde lan egitea"; eta "05. Gure hiriaren etorkizun jasangarria eraikitzea".

Badirudi "donostiarrekiko konpromiso" eskasa duela gobernuak, bi prozesu parte-hartzailerren ondoren erabaki duelako ezer ez egitea bertan planteatutakoari buruz. Are okerrago, guztiz kontrakoa egitea erabaki du: parke bat egin beharrean, aparkaleku bat egitea. Gainera, zenbat bilera egin ditu gobernuak bi prozesuetan parte hartu zutenei azken erabakia jakinarazteko? Zer pentsatuko dute parkea diseinatzeko prozesuan parte hartu zuten 300 hurrek baino gehiagok (gaur egun, nerabeak dira gehienak)? Nola parte hartuko dute berriro antzeko beste prozesu batean, aurrekari hori ezagututa? Horrelako jokaeren ondorioa da herritarrek politikarekiko duten interes-falta.

Era berean, PNV-PSE gobernu-akordioaren 05. konpromisoari dagokionez ("Gure hiriaren etorkizun jasangarria eraikitzea"), autoetarako azpiegiturak egiten jarraitzeak auto gehiago izatea eragingo du, ondo frogatuta dagoen bezala, eta hori hiriaren etorkizun jasangarria eraikitzearen kontrakoa da.

Era berean, ez dirudi udal gobernuak gogoan izan duenik Intxaurrondok trafik-maila handiak dituela, are gehiago Marrutxipin GI-20 errepiderako sarbidea ireki ondoren, eta aparkaleku horrek areagotu egingo duela trafikoa, horrek pertsonen osasunean dituen ondorioekin. Gogoan izan auzo honetan bizi direnen bizi-itxaropena hainbat urte laburragoa dela Erdialdean edo hiriko beste auzo batzuetan bizi direnena baino.

Sorleku aparkaleku bihurtzea basakeria da, dudarik gabe. Ez da jasangarria, ez ingurumenari dagokionez, ez gizarteari dagokionez, eta argi uzten du zein diren EAJren eta PSEren udal gobernuak defendatzen dituen lehentasunak eta eraiki nahi duen hiri-eredua.

Horiek horrela direla, honako kontrol-mozio hau aurkezten dugu:

KONTROL-MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu-taldeari Sorleku parkearen proiektua aurreikusitako kokalekuan gauzatzeko, Dbus garajeen ondoan, 2017az geroztik egindako herritarren partaidetzarako bi prozesuetan diseinatu bezala.

Arantza González García
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia